



Irailak 1 Ospa eguna! Denok Altsasura! / 1 de septiembre Ospa eguna! Tod@s a Altsasu!

OSPA MUGIMENDUA :: 02/07/2018

Desde el Movimiento Popular OSPA! hacemos un llamamiento a participar en el OSPA! EGUNA para demostrar nuestro rechazo a todas las fuerzas represivas

[Euskara]

Goardia Zibila zein bestelako indar aparatuen izaera zapaltzailea salatu eta errepresioaren aurrean babestea terrorismoa dela esan digute. Bizikidetza eraikitzea galarazten genuela. Justizia guztiontzako berdina dela.

Hala ere, guk badakigu nortzuk diren eskarmentuen bidez gizartean terrorea sartu nahi dutenak, haiek direla terroristak. Zer bilatzen dute 7 gazteen espetxeratzeekin? Badakigu behin eta berriz aipatzen duten bizikidetza hori haientzako besterik ez dela. Argi uzten digute sistema honetan norentzako dagoen justizia, eta norentzat jazarpena. Egungo errealitateari men egitea nahi dute, sistema aldaezina dela sinetsarazi nahi digute.

Baina ezinezkoa zaigu hori onartzea. Ezin dugu alde batetik bortxatzaileak aske utzi eta, bestetik, gizartea aldatzeko konpromezua hartzen dutenak bahitzen duen sistema hau ontzat jo. Euskaraz bizitzea ezinezkoa egiten duen gizarte honen aurrean isiltzea ezinezkoa egiten zaigu. Sarraski gerrak aurrera eramane eta bortxazko migrazioa eragiten duen sistema normaltzat hartu. Ezin dugu miseriara kondenatu nahi gaituen kapitalismoaren aurrean amorerik eman. Ezin dugu eta ez dugu amorerik emango.

Sistema honek opari ederrak uzten ditu beste gutxi batzuentzako ordea. Eta Estatuak, sistema betikotzea helburu, hau kolokan jartzen duen ororentzako mehatxuak, isunak, gartzela... erabiltzen ditu.

Estatuaren oldarraldi hauen aurrean ezin gara isilik gelditu, ezinbestekoa da hauen erantzuleak salatzen jarraitu eta gure buruak elkar babestea.

Ikusita Estatu espainiolak, frantsesak, zein, orohar, Europar Batasunak harzen ari duten norabide errepresiboa (Mozal legea, lan, pentsio zein kode penalen erreformak...), borroka anti-errepresiboa inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu. Ezin gara aparatu bidegabe hauen aurrean biluzik geratu.

Horregatik uste dugu borroka anti-errepresiboan aurrerapauso bat eman behar dugula. Zentzu horretan gure ekarpena egiteko prest gaude, OSPA! Herri Mugimendutik Altsasu eta

Euskal Herri osoari dei egiten diogu irailaren 1ean Altsasun burutuko den OSPA! EGUNAn parte hartzeko, era guztietako indar errepresiboei gure gaitzespena adierazteko.

Errepresioaren aurkako indar erakustaldia izan dadila! Gorde data, irailaren lehenean ozen entzun gaitzatela, ez ditugula behar, ez ditugula nahi! ATXILOTUAK ASKATU! ALDE HEMENDIK!

[Castellano]

1 de septiembre Ospa eguna! Tod@s a Altsasu!

Nos han dicho que denunciar el carácter opresor de la Guardia Civil como de los demás aparatos de fuerza y protegernos ante la represión es terrorismo. Que impediámos la convivencia. Que la justicia es igual para tod@s.

Pero nosotr@s sabemos quienes son los que quieren, por medio de escarmientos, extender el terror en la sociedad, que ell@s son l@s terroristas. ¿Que buscan con la encarcelación de 7 jovenes? Sabemos que esa convivencia que tanto mencionan es solo para ell@s. Dejan claro para quien hay justicia y para quien hostigamiento en este sistema. Quieren que nos arrodillemos ante la realidad actual, hacernos creer que el sistema es inquebrantable.

Pero nos es imposible aceptar esto. No podemos dar por bueno un sistema que mientras por un lado encarcela a quienes cogen el compromiso de cambiar la sociedad, por otro deja libres a violadores. Se nos hace imposible callarnos ante una sociedad que hace imposible que vivamos en euskera. Tratar como normal un sistema que organizando guerras de rapiña provoca la migración forzosa de millones de personas. No podemos arrodillarnos ante el capitalismo que nos quiere condenar a la miseria. No podemos y no nos arrodillaremos.

Pero este es un sistema que otorga grandes beneficios a un@s poc@s. Y los Estados, funcionando como aparatos para perpetuar el sistema, amenazan, multan, encarcelan... a tod@ aquel(la) que ose a poner en cuestión el status-quo.

No podemos quedarnos callad@s ante las embestidas del Estado, es imprescindible denunciar a l@s responsables y proteger nuestras espaldas colectivamente.

Viendo el camino represivo (Ley Mordaza, reformas del código penal, de las pensiones, laborales...) que han emprendido tanto el Estado español y francés, como la Unión Europea en general, entendemos que la lucha anti-represiva es mas necesaria que nunca. No podemos quedarnos desnud@s ante estos aparatos.

Por eso creemos que tenemos que dar un paso adelante en la lucha antirepresiva. En este

sentido estamos dispuest@s a hacer nuestra aportación, desde el Movimiento Popular OSPA! hacemos un llamado a Altsasu como a toda Euskal Herria a participar en el OSPA! EGUNA que se organizará el 1 de Septiembre en Altsasu, para demostrar nuestro rechazo a todas las fuerzas represivas. ¡Que sea una demostración de fuerza ante la represión! Guardaos la fecha el 1 de Septiembre que nos oigan alto y claro ¡Ni os queremos, ni os necesitamos! ATXILOTUAK ASKATU! ALDE HEMENDIK!

<https://eh.lahaine.org/irailak-1-ospa-eguna-denok>